

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## Ziklo berria hastear da

Kargu-hartze ekitaldiak, larunbat honetan. Goizeko 10:00etan, Andoainen, eta ,12:30ean, Urnietan / 15

## Azkorteko ermita

50 urte bete dira tokiz aldatu zuten ermita berria eraiki zutenetik / 12

**Urnietarrak nagusi Euskal Pentatloi txapelketako binakako finalean** / 10-11

**Kadete mailako txirrindulariak, Euskadiko onenak ordulariaren aurkako proban** / 12


**Amaiera bikaina eman zioten Sorabillan Iturzaeta pala txapelketari** / 12

**Rock Jaialdiaren XV. edizioak jendetza erakarri zuen Nafarroa plazara** / 8-9



**"Upon entry" filmaren estreinaldia Basteron, denboraldiko azken asteburuan** / 14

**Andoaingo EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek agintaldi berrirako akordioa lortu dute** / 5



**Ekainak 17, larunbata**

**UDAL KORPORAZIO BERRIEN OSAKETA**

Jarraipena AIURRI.EUS gunean: kronikak, argazkiak, bideoak



Azkorteko basiliza, 1969ko abenduan lehenbiziko lubizia jasan ostean.



Jada hondatuta zegoen Azkorteko antzinako basilizaren aurrealdean azken meza ospatzen, 1970/05/03an.



Urnietako zenbait sinestun ermita berriaren lehenbiziko harriaren ondoan. Ezkerretik hasita: identifikatu gabekoa, Gillermo Lizeaga (Bidegurutzeta), Maria Lizeaga (Sorola) eta Joxe Balda .



Almortzategiko Harkaitzeko muinoan, lehen harria ipintzeko ekitaldi sinbolikoa 1970/05/03an, Ramon Atxaga alkateak eta Joxe Goiak apaizak gidatuta.

# Harrobiak Azkorteko basiliza txikitu zueneko

Santa Krutz ermitak 50 urte bete ditu, maiatzaren 3an. Orain ezagutzen dugun basilizak harrobiko leherketen ondorioz suntsituta geratu zen ermita zaharra ordezkatu zuen. 1969ko abenduan hondatu zen, eta 1973an berria ireki zuten

**Xabier Lasa** URNIETA

Baselizaren ondoko Ondarzulo harrobiaren ustiaketarako ohi-koak ziren leherketak, eta 1969ko abenduaren 28an, lubizi batek basilizaren zati bat txikitu zuen. Harrez gero, pixkanaka-pixkanaka hondatzen joan zen basiliza, harik eta 1970ko uztailan erabat suntsituta geratu zen arte. Sakristia (bere tresna eta apaingarriekin), bobeda, presbiterio osoa, erretaula (aldarea eta pulpituarekin), ezkila dorrea, eta eliz atari edo estalpearen zati bat, joan ziren harrobiko malkarrean erortzen behera denboraren poderioz.

Aurreneko erasoaldia gertatu zenean, auzoko bizilagunek Kris-

toren irudia, ur bedeinkatuko ontzia, ezkila, leiho biribila eta sarrerako arku ojibala osatzen zuten 14 dobelak edo harriak libratu zituzten hondamenditik. Kristoa Santa Leokadiako basilizara eraman zuten, bigarren aldiz. Horretarako, lehenbizi zaharberritu egin zuten, hondatu samarra baitzegoen mendetan jasandako suteak, lekualdatzeak, bala kolpeak edo lapurreta saiakerak zirela eta.

1972ko maiatzaren 17an, arratsaldeko 15:00etan, erabat suntsituta geratu zen ermita; oraindik, zutik irauten zuen horma puskak, dinamitarekin leherraziti zuten. Orduko prentsa kronikak diotenez, hormak —>

uste baino gogorragoa izan, ezin eraitsi, eta, hortaz, dinamita kantitatea gehitu behar izan omen zuten.

### Haserre franko

Urnietako eta inguruetako herrietako fededunei izugarritzko haserre eragin zien baselizaren txikizioak, eta agudo sortu zen mugimendua baseliza berria eraikitzeko asmoz.

Batetik, Urnietan bertan, Urnietako Udala, guraso kristauen taldea, Parrokiako batzordea, Luistarrak eta Mariaren Alabak... bildu, eta batzordea osatu zuten.

Bestetik, suntsiketak prentsan oihartzun zabala eduki zuten. 1969-1973 epealdian, makina bat artikulu plazaratu zituzten txikizioagatik amorrua eta pena agertuz, baseliza zaharraren dohainak eta balio historiko, artistiko eta espiritualaren goresiz, baseliza berria eraikitzeko aldarrikapena eginez... Teresa Amuategi Urnietako emagin eta historialariak, Manuel Lekuona apaiz euskaltzaleak, Luis Peña Santiago mendizale eta mendi kronikariak eta Migel Olaskoagak idatzi zituzten erreportaje indartsuek askoren kontzientziak poztea eragin zutela esan daiteke.

Bereziki aipatzekoa da Olaskoagaren ekimen nekaezina; Donostian bizi ziren Maria Otategi emaztea eta biak, baina Urnietan Txolarte etxearen jabe ere baziren. Bada, Olaskoaga buru-belarri murgildu zen baseliza berria eraikitzeko aldarrikapenaren alde. Artiluak idatzi zituen, argazki dotore eta zirraragarriak egin eta argitaratu zituen txikizioa bistaratzeko, eta baseliza berreraikitzeke ekimenetan modu aktiboan hartu zuten parte. Prozesu guztia islatzen duen dokumentazioa (argazkiak, prentsa artikulua, eskaera idatziak...) txukun-txukun jaso eta utzi zituen Urnietako parrokan. Egun, agiri sorta hori Urnietako udal artxi-boaren zaintzapean dago.

### Berria eraikitzeke ekimenak

Urnietako udalak, Ramon Atxaga alkate zuela, bere bizkar hartu zuen baseliza berria eraikitzeke idea. Hasiara batean, baseliza berria Almortzategiko Harkaitzean eraikitzea erabaki zuten Udalak, pentsatuz Urnietatik eta Oria eta Lasartetik bista-bistan eratuko zen men-



Guruzbide zaharretik geratzen diren sei zutabeetako bigarrena, aldapan gora. Atzean, eta Azkorteko ermita eta Almortzategiko Harkaitza.



Fermin Olasaguirre, Elorriaga baserriko semea.

di muino edo kaskoan izango zela egokiena, baseliza zaharra ere halako begiraleku estrategiko batean egon baitzen kokatuta. Are gehiago, ekitaldi simbolikoa ere antolatu zuten, lehenengo harria ipiniz bertan 1970ko maiatzaren 3an. Egun horretan, aurrez, azken meza

**1969KO ABENDUAREN 28AN, LUBIZI BATEN ONDORIOZ, BASELIZAREN ZATI BAT TXIKITU ZEN**

ospatu zuten Azkorteko baseliza zaharraren aurraren. Joxe Goiak meza emateaz gain, lehen harri hura bedeinkatu zuten.

Nolanahi ere, laster, atzera egin zuten lehen kokapen horrekin. Ziurrenik, ohartu ziren Almortzako Harkaitza izeneko

**1970EKO MAIATZAREN 3AN LEHEN HARRIA IPINTZEKO EKITALDIA EGIN ZUTEN**

muinoak obrarako zailtasun teknikoak besterik ez zituela eragingo. Horrenbestez, baseliza berria, muino horren eta baselizara zaharraren artean dagoen Burundaingo zelaian zutitza erabaki zuten; horretarako, Udalak Elorriaga baserriko familiari erosi zion. Hain zuzen, udalak baserriko etxe-jauinarekin 2.102 metro karratuko lur-sailaren salerosketa hitzartu zuten, 1971/03/27an.

Aldi berean, hiru aldeek osatutako hitzarmena bultzatu zuten Udalak ondoren, 1972/01/07an. Era horretan, Udalak (Ramon Atxaga alkateak ordezkaturik), Jose Lasa Ondarzu harrobiko nagusiak, eta, Eduardo Atxaga kontratistak, honako terminoetan adostu zuten kontratua, labur esanda: eraikinaren obraren 956.000 pezetako aurrekontua harrobiko enpresak bere gain hartu zuten kontratistari emanetz guztia, eta, trukean, Udalak Jose Lasaren enpresak ustiatzen zuten harrobian (Azkorte edo San Jose) egindako obra guztiak legeztaizteko eskatuta zeuzkan udal-lizentziak eman zizkion.

Berez, aurrekontu osoa 1.100.000 pezetara igo zen gutxi gora behera, eta Udalak bere gain hartu zuten harrobiko enpresak jarri ez zuten gainerako guztia; hots, proiektua idazteko eta obrak zuzentzeko ordainsari teknikoak, eta, ermitara iristeko bidearen obra, besteak beste. Finean, harrobiko enpresak ermita berriaren kanpoko egitura kosteatu

zuen, eta barruko obra guztia, auzolanean egin zen makina bat urnietarren esku zabaltasunari esker.

Baseliza berria zaharraren ahalik eta antzekotasunik handiena eduki zezan saiatu ziren. Neurriak, orientazioa, estalpea, sakristia, korua... Aldarerik eta erretaularik gabeko baseliza izatea erabaki zuten, Kristoren ondare historiko preziatua eta aldare-mahaia besterik ez. Era berean, baseliza zaharretik ez-kila, ur-bedeinkatuko ontzia, leiho biribila eta sarrerako arku ojibala (14 harriz osatua) erantsi zizkieten.

Horma batean, halako leloa ipini zuten:

*“Zuk gaituzu gu gordeko Gurtze Santu Azkorteko”.*

Azkenik, Azkorteko baseliza berria, 1973ko maiatzaren 3an inauguratu zuten.

### Ermita zaharraren historia

Azkorteko baseliza zaharra Erdi Arokatzat jotzen dute adituek (XIV-XV mendeetan kokatuz). Ikuspuntu historiko eta artistikotik, zurez zizelkatutako Kristo gotikoa da nabarmentzekoa, XIII. ren bukaerako delarik. Greco pintore famatuak margotu izan zituen Kristo gurutziltzatuekin parekatu izan dute maiz.

Kanpoaldean estalpe ederra zeukan, Donejakueko erromes, fededun eta mendizaleentzat. Begiraleku aparta, Donostialdeko itsasertz guztia edo Adarra-Mandoegiko mendizerra kontentzatzeko.

1635koa da baseliza aipatzen duen lehenbiziko agiria. Hain zuzen, Lope Martinez de Isasti historialariak *Compendio Historial de la provincia de Guipuzcoa* liburuan adierai zuen babes espirituala zela gipuzkoar askorentzat, eta baita *“devota para tercianas y cuartanas”*; alegia, malaria eta paludismoa jasaten zutenek debozio handia ziotela. bertaratzen zirela.

Hondamendia zela eta, 1969-1973ko epealdian, Luis Peña Santiago idazleak idatzi zituen artikuluetako batean zioenez, baselizaren hormak “prozesio handi eta gurutze-bide, antzinako tradizio eta ohituren lekuko” izan ziren mendetan... Halaber, Santiagoko bide frantsesa egiten ari ziren erromesek ere biziki estimatzen zutela, “Basaburua eta Leringo San Esteban ibarretatik iristen ziren erromesen

kondaira eta sinesmenenak ere. Horiek, kostalderako bidean, Urumeako harana atzean utzi aurretik, derrigorrezkoa zuten Azkorteke basilizatik igarotzea, Kristoren oinetan otoitz egiteko”.

Hain zuzen, Buruntzaldeako fededunentzat bidegurutze famatuena izan zen. Horrela, Berrasoeta baserri paretik abiatuta, kalbarioak egin ohi zituzten, otoitzean eta kantuz, tradiziozko hamalau pausoak bete arte.

Suteak eta lapurreta saikaerak maiz jasan izan bazituen ere, azpimarratzekoa da I. Gerrate Karlistan (1833-1840) nola erre zuten topa liberalek O'Donnell jeneralaren agindupean, 1837ko irailaren 8an, hain zuzen. Urnietan, San Migel parrokiari eta 174 etxe eta baserriri ere eman zieten su. Ordukoa gogoratzeko sortu ziren bertsoetatik, famatua da pasartea, zera dioena: “*Orra nun da Urnieta/malamentian erreta,/ez da besterik pareta*”.

Nonbait, egun tragiko haietan, Erauso Txikiko baserriko Joxe Mari Mitxelenak Kristoa basiliza ondoan, harrika botata topatu, eta Andoaingo Kaletxikiko Berrozpen ezkutatu zuen. Gerra amaituta, Santa Leokadiako basilizara eraman zuten. Irudaz gain, ur bedeinkatuko ontzia ere salbatu omen zuten hondamenditik.

1911an, urnietarrek berreraiki egin zuten basiliza, auzolanean.

#### Iraganeko aztarnak

Gaur egun, ez da antzinako ermita izan zenaren arrasto fisikorik geratzen; izatekotan, kalbarioetarako bidea markatzen zuten hamalau gurutzeen zutabe batzuk. Hain justu, mende erdia bete duen Azkorteke ermitatik Buruntzarako maldan



Azkorteke basiliza zaharra, txiki-txiki eginda, 1972an.



Azkorteke basiliza zaharra kokatzen zen ordeka, gaur egun.

gora goazela, sei zutabe topatuko ditugu; guztiek ere hautsita dauzkate burnizko gurutzeak. Oinez abiatu, eta ehun bat metrora topatuko dugu lehena, eta tipi-tapa, goraxeago

bigarrena, hirugarrena... Horrela, ermita zaharrera bideratuko gaituzte sei zutabeek; azkena, seigarrena, ermita zaharra kokatzen zen ordekaaren pare-parean dago.

Elorriaga baserriko Fermin Olasagirrek ederki asko ezagutzen ditu sei zutabe horiexek. Ez alferrik, Elorriaga baserriko sementa baita. Bertan 1939an jaiotzen, eta bertan bizi 33 urterekin

Andoainera bizitzera etorri zen arte. Gurasoak Migel Olasagirre eta Martina Lizeaga izan zituen; lau senide hazi izan ziren baserri horretan, Angel, Joxe Mari, Manuela eta Fermin.

Hamarkadetan, Elorriaga baserrian ospatu ziren Santa Krutz eguneko erromeriak. Aita, berriz, basiliza zaharreko sakristaua izan zen. Ferminek aitortzen duenez, “amak ez ezik, anai-arrebok ere, aitari makina bat alditan lagundu behar izan genion sakristauaren zereginetan, baita ermita zaharreko edozein konponketak (teilatuko itoteak eta abarrak) egin behar zirenean ere; obretarako behar zen materiala, asto zaharra zamatuta igotzen genuen”.

Ferminek gehitu digunez, “senideen artean gazteena izaki, eskolak utzi, eta maiz joan behar izaten nuen monagillo lanak egitera On Jose apaizaren ondoan; izan ere, batik bat maiztazetik irailera ugari ziren fededunek ateratzen zituzten mezak bertan”. Gertu-gertutik bizi izan zituen elizkizun eta ospakizun guztietatik, Ostiral Santuko Kalbarioekin dauka aparteko oroitzapena. “Bailaran ospe handiena zeukan prozesioa zen, zalan-tzarik gabe! Harrigarria zen zenbateko debozioa zioen jendeak Azkorteke Santa Krutz ermitari! Berrasoeta baserri ingurutik hasten zen gurutzbidea, eta gurutze bakoitzean behar ziren errezo eta kantuak eginez igotzen zen jende ilara luzea goraino”.

Oharra: Iraganeko argazkiak, Migel Olaskoagak ateratakoak dira (Udal Artxiboan bilduta daude). Bide batez, Udal artxiboko Marijo Henriques artxibozainari eskerrak ematea dagokigu, erreportaje hauxe egiteko eskainitako erraztasunagatik.



Urnietako  
udala

ESKELAK  
JARTZEKO:  
**943 300 732**  
edo  
publizitatea@aiurri.eus

**Eskelak  
Aiurriin:  
90 euro**

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



## POSTONTZIA

EH BILDU, ELKARREKIN PODEMOS ANDOAIN

## Andoaingo EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdiek datorren larunbateko inbestidura-ituna lortu dute

Asteazken arratsaldean ospatu den ekitaldian, EHBildutik Andoni Alvarez zein Marta Lasa eta Elkarrekin-Podemosetik Pepe Iparragirre nahiz Teresa Santana bertan egon direla, larunbatean hasiko den 2023-2027 legealdirako inbestidura-ituna sinatu da. Hitzarmena modu azkar eta naturalean itxi da eta azken lau urte hauetan lortutako bi alderdien arteko lanketa eta konfiantzari erantzuten dio. Maiatzaren 28an lortutako emaitzen azterketa komuna eta argia da:

- Herritarren botoek, egungo PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiek osatutako udal gobernu kanporatu dute.
- Azken lau urte hauetako kudeaketa kaskarra eta gobernantza itxi baten erueda, urgentziatzko norabide baten aldaketa eskatzen duten hauteskunde emaitzan islatu dira.
- Orain arte, oposizioan egon diren bi alderdien gehiengo zabalak, udal gobernu berriari, ezinbestekoa den egonkortasuna eta eraginkortasuna emango dio.
- Andoaindarrok emandako botoari arduraz erantzun behar zaio. Adostasunak aldaketa behar bati arduraz erantzuten dio.

- Egun, Andoain herria, erantzun instituzional garbia eskatzen duten hainbat arazo larri ditu (C-2, Etxebizitza...).

Hitzarmen honen bidez, bi alderdiek gobernuaren ekintza garatuko den lehenetsuneko markoa finkatzen dute. Adostutako puntuak eta hemendik aurrerako desadostasunerako marjena, non alderdi bakoitzaren irizpide politikoetan oinarrituta, ekarpen propioak artikulatzeko gaitasuna izango duten.

Ondoren adostutako puntu nagusiak:

- **Udalaren berrantolaketa:** Udal gobernu berriak, udal berrantolaketa prozesua martxan jarriko du. Prozesu honen bidez, udal funtzionamendua optimizatzea lortu nahiko genuke, batzorde kopurua jeitsita eta barneko baliabideak ere hobetuta.
- **C-2 proiektua:** Bi alderdiek beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak erabiliko dituzte udal gobernutik C-2ren kontrako kanpaina instituzionala hasteko, herri mailan proiektuak izan ditzakeen ondorioen gaineko informazioa ematen. Kanpaina honekin batera,

herriko mahaia osatuko da proiektu alternatiboak idazteko helburuarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiari gaia desblokeatzeko bi aldeko mahaia eskatuko zaio.

- **Hezkuntza:** udal kompetentzien barne, baliabide ekonomiko handiagoak emateko konpromisoa hartzen da Ondarreta ikastetxearen instalazioak hobetzeko.

Horrez gain, beste hainbat beharren azterketa egingo da egoera zailtan dauden ikasleen bizimodua hobetzeko, Andoaingo beste ikastetxeetan ere zabalduko dena.

- **Inbertsioak:** Inbertsioekin lotutako egutegia adostuko dugu, orain arte askotan aipaturiko gaiei bultzada emateko (Kiroldedia, Udal liburutegia, Zerbitzuetako pabilioia...).
- **Zerbitzu publikoak:** Egun azpikontratatu dauden zerbitzuko publikazioaren gaineko lehenetsunak adostuko dira (lorenzaintza, eraikin publikoen garbiketa...).
- **Gobernantza parte-hartzailearen erueda:** Udal gobernu berriak, herri partaidetza eta gobernantza kolaboratzaileak sustatzeko dituen mekanismoak martxan jarriko ditu. Udal partehartze

ordenantza baten definizioan eta onarpenan lehenetsun gisa jarrita.

Hitzarmena betetzeko, Udal sail guztiak EHBilduko zinegotziek zuzenduko dituzte. Dena den, Elkarrekin-Podemos alderdiak ordezkaritza izango du Udal Gobernu Batzordean eta aurreko legealdian desaktibatutako Etxebizitza Mahaiaren funtzioa, osaketa eta funtzionamendu berdefinizioan ere hartu dute konpromisoa. Mahai hau martxan jartzen denean, Elkarrekin-Podemos zuzenduko du.

EH Bilduk udal sail guztiak gidatuko dituen arren, Elkarrekin-Podemos askatasuna dauka bertan lantzen diren gai guztien gainean irizpide propioen arabera erabakitzeke. Hala ere, gai estrategikoak (ordenantza fiskala, udal aurrekontua...) alde aurretik adostuko dira bi alderdien artean. Elkarrekin-Podemos alderdiarekin adostea lehenetsiko den arren, batzeko asmoa duten beste alderdiei ez zaie atea itxiko, gai bakoitzean akordio orokorrak eta transbersalak lortzeko helburuarekin.

Hitzarmen honekin, bi alderdiek osatuko duten Jarraipen Batzordea sortuko

dena, hurrengo larunbatean Andoni Alvarez Lete gehiengo osoaren bermearekin joango da inbestidura saiora.

Alvarez pozik agertu da eta bere hitzetan "hitzarmen honek maiatzaren 28an, hautetsontzitan azaldutako sentipena jasotzen du. Andoaindarrek botoa eman zuten EHBilduk gobernatu dezan eta horrela izango da. Elkarrekin-Podemosen laguntza oso garrantzitsua izango da eta espero dugu legealdian adostasunak beste alderdiei zabaltzeko aukera egon dadila. Andoain herriak erronka garrantzitsu eta premiazkoak ditu, ondorioz, arduratik erantzun beharra daukagu.

Bere aldetik, Pepe Iparragirreraren iritziz, "gure ustez, herriak aukeratu duen hautagaitza babesten dugu. Espero dugu inbestidura-akordio honek Andoainek eskatzen dituen gizarte-politikak praktikan jartzeko balioko duela eta, aldi berean, gure ideiak loturarik gabe defendatzen jarraitzeko askatasuna izango dugula".

Larunbatean, ekainak 17, goizeko 10:00tan inbestidura plenoa ospatuko da, bai EHBilduk bai Elkarrekin-Podemos gerturatzeko deialdia egiten du, hitzarmenaren alde egiteko.

# Material eta webgune berriak, jaiotzear

Buruntzaldeko udaletako Euskara zerbitzuek datorren ikasturtea hasterako jarriko dute herritarren eskura haur jaioberriak dituzten familientzako material berritua. Papera ez den kanalak erabiltzeko apustua ere egingo dute, 'euskara.buruntzaldea.eus' webgunea berrituta

## Txintzarri ESKUALDEA

Buruntzaldeko sei udalek maki-na bat urte daramatzate jaioberrien familiei hainbat material bidaltzen: zorion gutuna, hizkuntzari buruzko aholkuak biltzen zituen *Etxeak du giltza*, ibilgailuan jartzeko pegatina eta abestien CD bat. Azken urteetan hori guztia izan da sendiekin partekatu izan dutena. "Gogo onez jaso izan dute, zalantzarik gabe, baina urteak aurrera doaz eta aldatu egin da gure gizartea; bestelakoak dira pentsaerak eta ohiturak", adierazi dute. Horren aurrean, 2022.

urtearen hasieran material hori guztia berritzeari ekin zioten, "ilusio handiz", eta dagoeneko badute esku artean lan horren emaitza, laster herritarren esku jarriko dutena; 2023-2024 ikasturtea hasten denerako, hain zuzen. Aurrerapen moduan erabili ditugu bi orri hauek janzten dituzten irudi eta ilustrazioak.

## Bi erronka nagusi




Materiala berritzeko garaian bi erronkarekin topatu ziren eskualdeko udalak: alde batetik, gure herrietako biztanleria aldatzen

ari denez, gero eta gehiago dira kanpotik etortzen direnak, euskara badela ere ez dakitenak; bestetik, papera gero eta gutxiago erabiltzen denez komunikazioan, bestelako kanalak erabili behar dira. Lehenengoari dagokionez, keinu berezia egin diete gure artera etorritako horiei hainbat hizkuntzatan zoriontzarakoan, eta umeekin egunerokoan erabiltzen diren esaerak modu atseginean eskainiz. Bigarrenaren bueltan, *euskara.buruntzaldea.eus* webgunea berritzen ari dira, eta QR kodeen bidez lotzen pape-

rean sortu duten material berria eta atari digital horretako bestelako euskarriak: bideoak eta audioak, adibidez.

Bideoek "balio berezia" dutela nabarmendu dute, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilgo haur eskolen laguntza izan baitute horiek ekoizteko. "Bereziki eskertu nahi diegu egindako ahalegina eta lana".

Egitasmoaren helburua da familiak ere hizkuntzak ikaste-ko prozesuaren parte egitea, bidelagun izan behar baitute haurrek egingo duten bidean. Norabide horretan, hizkuntza ongi eskuratzeko baldintza ego-kiak ematea funtsezkoa da, bi hizkuntza ofizialetan eroso komunikatzeko gai izango badira.





**Haurtxoarekin**  
JOLASTEN  
ABESTEN  
ZENBATZEN



**JO  
LA  
SAK**



**ABES  
TI  
AK**



**ESA  
ERA  
K**




ONGI ETORRI  
JAIOBERRI!

Zorionak guraso, eta ongi  
etorri etxeko txikiari  
Buruntzaldeko Euskara  
Zerbitzuen izenean!

zorionak!

Saiatu euskaraz



## Hizkuntzak ikasten laguntzeko ardura, familiaena ere bai

Haurrek eskolan euskaraz ikasiko duten arren, familiek ere umeen bidelagun izan behar dute hizkuntzak eskuratzeko prozesuan, horretarako baldintza aproposak eskainiz. Gizarte eleanitz batean bizi gara egun, eta gure seme-alabak halakoak izango dira. Onuragarria izango da haientzat edozein egoeratan bi hizkuntza ofizialetan eroso komunikatzea

### Guraso euskalduna(k) bazara/bazarete

- Familiako kideek beren artean euskaraz egiten badute, haurra txikitatik ohartuko da tresna baliagarria dela eguneroko bizitzarako. Euskaraz egin zuen artean, eta nola ez, umeekin ere bai!
- Saiatu beste arlo guztietan ere euskarari lekua ematen: zaintzaile euskalduna hautatu, euskarazko aisialdiaren alde egin...
- Garrantzitsua da haurrak jolasteko eta ikasteko erabiliko dituen ipuin, joko eta abarretan euskaraz presentzia izatea.
- Gertuko nahiz ezezagun, lehen hitza euskaraz egin beti.

### Bikote mistoak

- Komeni da gurasoetako bakoitzak haurrari dakien hizkuntzan egitea, umea txikitatik elebiduna izateko. Guraso euskaldunak euskaraz egitea garrantzitsua da, eta ez dakienak hizkuntza horrekiko jarrera ona eta interesa izatea.
- Saiatu beste arlo guztietan ere euskarari lekua ematen.
- Garrantzitsua da haurrak jolasteko eta ikasteko erabiliko dituen ipuin, joko eta abarretan euskaraz presentzia izatea.
- Inguruan euskal hiztunak badituzue, eskatu haurrari hala egiteko, erreferente gehiago izan ditzan.
- Gertuko nahiz ezezagun, lehen hitza euskaraz egin beti.

### Euskaraz ulertzen baduzu(e)

- Zuen ama hizkuntza ez bada, zaindu etxekoa eta saiatu ahalik eta eredu osoena eskaintzen. Garrantzitsua da hizkuntzarekiko harreman ona eta jarrera positiboa igortzea.
- Euskara ahal duzuen guztia erabili, ondo dakizkizuen esaldi eta formulak erabilia.
- Saiatu beste arlo guztietan ere euskarari lekua ematen.
- Haurraren jaiotza motibazio ezin hobea izan daiteke euskara ikasten jarraitzeko eta umeari laguntzeko. Animatu eta eman izena euskaltegian!
- Eskatu zuen ingurukoei eta beste guraso euskaldunei zuei euskaraz egiteko.

### Euskara ez baduzu(e) ezagutzen

- Oso garrantzitsua da jarrera ona izatea; ama hizkuntza zaintzeaz gain, beste batzuk ikasteko interesa erakustea.
  - Funtsezkoa da euskara alor guztietan presente egotea: zaintzaileak, aisialdia...
  - Haurraren jaiotza motibazio ezin hobea izan daiteke euskara ikasten hasteko eta umeari laguntzeko. Animatu eta eman izena euskaltegian!
  - Euskarazko irakaskuntza hautatuz gero, bermatuko duzue haurrak euskararen eta gaztelaniaren ezagutza maila antzekoa izatea.
- \*Oharra: atal honetako informazioa gaztelaniaz jasoko dute gurasoek eskuorrian.*

Eskutxoa, eskutxoa,  
Non zaude?  
Hemen nago  
Kaixo laguntxoa,  
Banoa...  
Ni ere bai.

Zorionak zuri,  
Zorionak beti  
Zorionak (izena)  
Zorionak beti.

<https://euskara.buruntzaldea.eus/>



The Courettes taldeak ikusleen harrera beroa jaso zuen. Dena eman zuen Flavia Couri Rio de Janeiroko abeslari eta gitarrajoleak. AIURRI

# Plan bikaina, rockaren bueltan

Rock Jaialdia ezinbesteko hitzordua da hango eta hemengo rockzaleentzat, eta andoaindar askorentzat ere. Musikaz gozatzeko plan bikaina delako, eta baita jaialdiaren aitzakiapean, lagunarteko plana egiteko aukera ederra

## Erredakzioa ANDOAIN

Ehunka lagun elkartu zen Nafarroa plazan, nazioarteko proposamenez gozatu ahal izateko. Taula gainera igo ziren taldeak nekez ikusiko ditugu inguruotan, eta, horrexegatik, dira hain fidelak Andoainera hurbiltzen diren rockzaleak. Ahaztu gabe, dohainik dela eta inguruan janaz eta edanaz gozatzeko tokirik ez dela falta. Eguraldiak lagunduz gero, perfektzioa ukitzen duen plana da. Jaialdiak dituen dohai horiez jabetuta daude andoaindar asko, eta rock musika jaial-

dia lagunartean elkartu eta gau giroan murgiltzeko aitzakia da. Plan ona eskaintzen du Kultura sailak, herritik atera gabe.


Herrikide askok baliatu zuten aukera hori, lagunartean afaltzeko eta musikaz gozatzeko.

Ostalaritzan duen eragina ere saihestezina da. Nafarroa plazako eta inguruko tabernak jendez lepo ziren, iluntze aldera. Rock Jaialdia San Juan jaien atariko ospakizun bilakatu dela esan daiteke.

www.aiurri.eus



• ROCK  
JAIALDIA  
IRUDI BIDEZ



Jared Swilley Black Lips taldeko baxu-jotzailea, Nafarroa plazan. AIURRI



# Rock Jaialdira hutsik egiten ez duten bi anaiak

Bernardo eta Christian Ganchoeu anaiak orain arte Andoainen ospatu diren hamabost Rock Jaialdietan izan dira. Frantziarrak dira, Paun eta Parisen bizi dira. Rock zale amorratuAK izaki, Jaialdiko jarraitzaileak fidelenak direla esan daiteke

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Rock soinuak eta doinuak dira beren bizitzako ipar; musika-entzuleak ez ezik, baita musika-riak ere badira, "sekula arrakastatsua izatera iritsiko ez den" The Clanks taldeko partaideak dira hain zuzen.

Orain urte mordo atzera joanda, Irungo Juanar Garcia Bloody Mary disko eta ekoizpen enpresako kidea ezagutu zuten, eta honek, 2008an aipatu zien nola ari zen Andoainen antolatzen Rock Jaialdi bat. Bada, jakin-minak piztuta, mapa hartu, Andoain zirkulu gorri batez markatu, eta ekaineko larunbat eguardirako heldu ziren bertara, ziztu bizian.

Gazteagoak zirenean, gogoan dute nola egiten zuten lo-edo lo kuluxkatxoa- autoan, igandean berriro ere etxerako bidea hartu aurretik. Azken urtetan, ordea, ohartu dira gorputzak atsedean eske kezkatzen zaizkiela. Beharko atsedena hartu, Aperitifeko hiru kontzertuak eguerdian eta Rock Jaialdiko sei kontzertuak ilunabar-gauean ondo irentsi eta gero! Beraz, inguruko aterperen batean ostatu hartzeko ohitura hartu dute.

Jendeartekoak eta gertukoak dira, umore onekoak, eta egia esan, urte hauetan ez dute zail-



Bernardo eta Christian Ganchoeu anaiak, larunbat eguerdian, Goikoplazan. AIURRI

tasun askorik eduki harreman estuak egiteko rockarekiko zaletasunarekin bat egiten dute pertsonekin. Horrela, makina bat lagun egin dituzte Andoainen, Ane, Peio, Xabier, Kike, Lurdes... Adopzioko seme sentitzen dira kasik bertan.

Andoaingo Rock Jaialdiak zer daukan apartekoa galdetuz gero, azka batean ematen dizute erantzuna: "betiko rockaren esentziari, benetakotasunari eusten dio. Uko egiten dio aspektu komertzialari, jendea erakartzeko printzipioak hausteari; rockaren erroetara jo izan du, urtez urte. Halako jaialdiak ahaitzen ari dira Frantzian, eta Europako

leku askotan, eta horrexegatik, pribilegio bat da Andoaingoak bizirik segitzea. Bestalde, hemen bizitzen den giroa, jendearen abegikotasuna... ez duzu topatzen beste inon".

Dena esatera, badute kritikaxoa egiteko ere, aitortzen baitute ez ziela grazia askorik egin iazko edizioako kartelean Drogas sartu izana, "Jaialdiaren filosofia hautsi egin zela hura ekarrita, iruditzen zaigu; ahalik eta jende gehien erakartzea izan zen helburua".

Hurrengo urtea noiz iritsiko zain daude kasik. Beren agendan hizki gorritz markatuta daukate, San Juan aurreko asteburua.

## NIRE USTEZ

**JON ANDER UBEDA** KAZETARIA

### Debate bizia goizeko ordu txikietan



Pat Beers, Rock Jaialdiko Saltinbankia. DABIDARGINDAR

Zeresana eman du Andoaingo Rock Jaialdiko azken kontzertuak. Gaua The Schizophonics Kaliforniako hirukotearekin amaitu zen. Goizeko ordu txikietan, eztabaida sortu zen ikusleen artean. Polemikaxoaren erdigunean taldeko kantari eta gitarra jole Pat Beers zegoen. Giroan, bazegoen galdera bat: ikusten eta entzuten ari garena bat al datoz? Bestela esanda, abeslariaren gitarratik irteten dira "solo" horiek? Neronek ez nuen kontzertua zuzenean ikusi ahal izan, azken taldearen txanda iristerako etxean txiki-txiki eginda nengoelako -datorren urtean, otoi, ez dadila ikastolako amaierako festaren egun berean izan!-. Bideo bat iritsi zitzaidan telefonora, eta ikusten ari nintzena ezinezkoa iruditzen zitzaidan. Bertan izan zen lagun bati idatzi nion, eta hark barre egin zuen. Gaudiko eztabaida horixe zelako, Nafarroa plazan bertan. Ezinezkoa iruditzen zitzaidan. Beers, gainera, saltinbankiaren modura zebilen taula gainean, hara eta hona, saltoka nahiz lurrean etzanda. Halako mugimendu bizi, zoro eta geldiezinak ez ote ziren gitarrajole solistaren hutsunea estaltzeko ariketa? Horixe nuen buruan. Baina, orduan, zuzeneko musika bizi eta ero hori eskaintzea aurrez grabaturiko piezekin uztartzea bateragarria al da? Hori ere ezinezkoa iruditzen zitzaidan. Youtubera jo nuen, zalantzak argitzeko. Bila ezazue zuzeneko bideoren bat, ahal dela, lehen lerroan grabaturiko bideoren bat. Eta ikusiko duzue salto egin, abestu eta gitarra soloak egiteko gaitasuna baduela. Ez du meritu makala, ezkerreko eskuko hatzekin nota eskala ezberdinak egin eta gitarraren pisuari eusten diolako. Eskuineko eskua gora, behera, aske mugitzen dituen bitartean. Ikuskizun basatia.

## Aperitif saioak, eguerdian

Andoaingo Rock Jaialdia eguerdian abiatu ohi da, hainbat plazatan antolatutako kontzertu txikiak. Txikiak, azpiegiturari dagokionez. Gainerakoan, hiru taldeak Nafarroa plazan aritzeko moduko proposamenak ziren. Gogotsu aritu ziren Arima, Siglas eta Krin taldeak, bakoitza bere estiloan. Bertaratu zirenentzat gozamen hutsa izan zen.



Arima taldea Zumea plazan aritu zen, zuzenean. AIURRI



Mikel Etxegarai abeslari ikusgarria. AIURRI



Julen Gabirondo eta Beñat Telleria, txapela jaso berritan. PENTATLOIA



Nerea Arruti eta Amalur Arbelaitz Pentatloiko onenak izan dira, bigarren urtez jarraian.

# Panoramix Urnietatik pasa zenekoa

**HERRI KIROLAK** Nerea Arrutik, Julen Gabirondok eta Beñat Telleriak Pentatloiko Binakako Txapelketa irabazi zuten igandean Tolosan; Nerea Arrutik, Amalur Arbelaitz lagun, aise, eta bi mutilak larri samar, 20 segundo eskaseko aldearekin

## Andoni Urbistondo URNIETA

Urnietako urek zerbait berezia ote duten ikertzen hasi beharko dira. Akaso Buruntza eta Adarramendi mendietako haizea izango da, baina herriko kirolariak olatuaren aparretan dabilta herri kirolak diziplina ikusgarrienean. Panoramix druida Urnietan barrena ikusi duenik ere ba omen da, bere edabe magikoa prestatzen. Pasa den igandean jokatu zen Tolosan Euskal Herriko Binakako Pen-

tatloiko Txapelketa, eta lau txapelketatik hiru urnietarrak dira: Nerea Arruti, Julen Gabirondo eta Beñat Telleria. Beñaten kasuan, Lasarte-Oriako bizilagunen baimenarekin, geogra-

fikoki herri hartako lurretan bizi baita.

Nerea Arruti banakako txapelketa ere bada, eta bigarren lortu zuen binakako txapela. Itzal egingo dion lehiakiderik

**NEREA ARRUTIK  
BINAKAKO  
TXAPELKETA  
LORTU DU,  
BIGARRENEZ**

**AURKARIEK EZIN IZAN  
ZUTEN GABIRONDO  
ETA TELLERIAREN  
MARKA APARTA  
GAINDITU**

doni Iruretagoiena bigarren. Julenek eta Beñatek erlojupeko bat bailitzan ekin zioten euren lanari. Harri jasotzean gatz handiarekin sumatu zitzaion Zelai-Eder etxeko mutilari, zerbaitetan espezialista bada, harri jasotzean baita Beñat. Giza-proban ere, ordea, bikain aritu zen Beñat, 400 kiloko harria hartxintzarra balitz bezala mugitzen, kolpe handiak emanda. Julen bera baino erosoago aritu zen Beñat diziplina horretan.

Aizkora lanetan Mozotegiko semeak hartu zuen erantzukizuna, eta txanda luzeagoak egin zituen. Beste bi bikoteak atzeratu samar, bakarkako lanean jarraitu zuten txingetan eta korrika. Telleriak, pisutsuago, majo sufrituko zuela zirudien zezen plazari bueltaka, baina oso txukun moldatu zen. Gabirondo baino mantsoago, Julenek bere bi milakoak 3.30 inguruan osatu baitzuen, bakoitza. 36.15 denboran pausatu zuten kronometroa, aurreko errekorra baino 3.30 gutxiago. Marka latza, eta presio guztia Iruretagoiena eta Olaizolaren jartzen zuena.

## Gabirondo eta Telleriaren lehena

Nahiko paretsu ibili ziren Aia-ko mutil puska eta Xabat zarautzarra: 25 segundo goitik harri lanak bukatuta, antzeko giza proban, aizkoran eta txingetan Andoni eta Xabat segundo ale batzuk aurretik... Korrika saioak erabakiko zuen, baina Olaizolari bete samar sumatu zitzaion, eta lehen bi kilometroak 9 minutuan osatu zituzten, 4.30 milako bakoitzeko. Urnietako bikotea aurretik zen nabarmen, baina Urola Kostako bikoteak estutu egin zuen ikaragarri. Azken bi kilometroak 3.30ko erritmoan osatu zituzten, eta 19 segundotatik bakarrik gainditu zuten Gabirondo eta Telleriaren marka aparta. Korrika saioa azken itzulian sartu arte zain egon behar izan zuten Beñatek eta Julenek, baina ondoren pozez lehertu ziren. Lehen txapela da bientzat, eta lehena beti izaten omen da bereziagoa.

ez dauka, gaur-gaurkoz, Lekun baserriko alabak, eta bere gaitasun fisiko handiaren hamakagarren erakustaldia eman zuen Tolosako zezen plazan. Amalur Arbelaitz oiartzuarra lagun, parean zituzten bi bikote lehiakideei aurrea hartu zieten azkar, eta garaipen eroso lortu, Hobeak izan ziren bost diziplinatan: harriak jasotzen, giza proban, aizkoran, txingetan eta korrika, eta marka berria jarri zuten lan guztiak bukatuta. Arrutik modu ikusgarrian bukatu zuen korrika saioa, kilometroa 3.40ko erritmoan korrituz, eta zezen plazan bildu ziren ehunka lagun txalo zarta soinutsuak sortuz.

Mutilen lehiaketa askoz ere estuagoa izan zen. Sei bikote parte hartu zuten, eta bi txandatan banatu lehiakideak. Julen Gabirondo eta Beñat Telleria lehenengoan aritu ziren, eta haien aurkari zuten eta faberito ziren Xabat Olaizola eta An-

www.aiurri.eus

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



• **KIROL  
ALBISTEAK**

## “Ez gintuzten favoritotzat hartu, eta motibazio handiarekin aritu ginen”

**NEREA ARRUTI** KIROLARIA

Binakako Pentatloi Txapelduna da



Nerea Arruti. AIURRI

**Andoni Urbistondo** URNIETA

Asteleheneko lan txanda bukatuta, eta oinazerik gabe hartu du telefonoa Nerea Arrutik. Ezin izan zuen garaipena ondo ospatu, lanak bukatu osteko edariak sabela nahastu ziolako.

**Ze balantze egiten duzu, lehiaketa bukatu eta 24 ordura?**

Oso ondo nago. Ez nuen pentsatzen hain ondo ibiltzea. Ni bete-betean aritu nintzen, eta Lur Errekondok eta Oihana Barrenak favorito argi zirela pentsatzen zutela esango nuke. Horrek asko motibatu ninduen. Autoan elkarrekin joan nintzen Tolosara Amalur Arbelaitz kidearekin, eta lasai ikusi nuen, konfiantza eman zidan horrek. Gero lan ona egin genuen, presioari aurre eginez. Harriekin ondo aritu ginen, baina giza proban galdu samar ikusi nuen Amalur. Gerrikoa non zeukan ez zekien, aizkora ere ez ondoren... Bete egin zela esango nuke, tentsio apur bat galdu tarte horretan. Sekulako meritua dauka, dena den, eta beste inork baino gehiagok merezi du txapela. Goizeko 5etan esnatzen da baserrian egunero, etxeko gauzak egin, lau ume zaindu, 43 urte... Zeregin guzti horiekin entrenatzeko tarte bilatzea ez da erraza. Meritu itzela dauka.

**Noiz hasi zineten txapeldun izan zintzetela sumatzen?**

Aizkora bukatuta. Egur bateko abantaila lortu genuen. Bagenekien aizkora hautsi behar genuela Lur eta Oihana, korrika arazorik ez izateko. Hala izan zen.

**Agerikoa da taktikak eta beste prestatu egiten dituzuela, ez dela ezer zoriaren baitan uzten.**

Ez noski. Elkarrekin entrenatu izan dugu sarri, eta gauza horiek hitz eginak daude: zer egin, zer ez, non jo...

**Noiz hasi zineten txapela ospatzen?**

Korrikako azken bi itzuletan, azkenekoan batez ere. Publikoa agurtzen hasi nintzen unean. Korrika gozo aritu nintzen, ez nuen bestetan bezainbeste sufritu.

**Ondo ospatu al zenuen txapela?**

Ba ez. Ez genuen ezer egin, garagardo bat edan, eta tripan gaizki egin baitzidan. Aurreko astean opor txiki batzuk egin nituen, eta tira, gustura.

**Mutilen proba adi-adi jarraitu zenuen. Hor ere Urnietako bi mutil txapeldun, latza.**

Azken lau itzuliak Ioritz Gisolarekin ikusi nituen, geure buruari Julenek eta Beñatek irabaziko ote zuten galdetzen, ezinezkoa baita korrikako itzuli bakoitza 15 segundotik behera osatzea. Lanak oso txukun egin zituzten, batez ere Beñatek. Korrika oso ondo ikusi nuen, buelta eman zion nekeari, eta ez da erraza. Julenek neurri bikaina emango zuela jakina zen.

**Ze asmo, orain?**

Banakakora begira nago, dagoneko. Gauzak normal irailean izango da.

**Txapelduna zara, denak zu gaintzeko asmoarekin ariko dira.**

Beno, hobe niretzat. Esan dut horrek motibazio berezia sortzen duela nigan.

## “Lau itzuliren faltan ikusi genuen txapela gurea zela”

**BEÑAT TELLERIA** KIROLARIA

Binakako Pentatloi Txapelduna da



Beñat Telleria. AIURRI

**Andoni Urbistondo** URNIETA

Igandeko pasara latzaren oinazeei buelta hartzeko bidean zen Beñat Telleria astelehen arratsean, artean. Bere lehen parte hartzea zuen, Binakako Pentatloia Txapelketan, eta oso gogorra egin omen zitzaion. Igande gauean Oianumen egin zuen afari goxoarekin minak joaten hasi zitzaizkion.

**Zer moduz lehiaketa, lehenengoa zuretzat, Beñat?**

Oso gogorra. Pasara latza hartu nuen! Indar lanetan hobeago aritu nintzen, harriekin eta giza proban batez ere. Aizkora komerik izan nituen, eta korrika hainbestean. Bi horietan Julen hobeto aritu zen. Nirea eman nuen, eta gustura, akaso jendeak ez zuelako espero hain txukun aritzea.

**Lehen txandan lehiatu zenuen, eta aurkari nagusiak, Andoni Iruretagoiena eta Xabat Olaizola, bigarrenen. Nola prestatu zenuen jarduna?**

Gu geurea egiteko asmoz hasi ginen, topera. Lan guztiak oso ondo egin genituen. Bikote horri presioa jartzeko asmoa genuen, denbora polita eginez, eta lortu genuen neurrian, egoera hori ordaindu egin zutela esango nuke.

**Hortxe-hortxe ibili zineten denboretan: harrietan eta giza proban zuek aurretik, aizkora eta txingatan haiek...**

Pentatloian korrika saioan erabakitzen da sailkapena, eta haiek espero ez genuen taktika erabili zuten: itzuliak banaka egitea. Guk binaka egin genituen, baina

banaka eginez indarra hartu eta denbora jan zigutela esango nuke. Deskantso gutxiago hartzen da, baina pasara ere txikiagoa.

**Bazirudien erraz irabaziko zenuela, baina asko hurbildu ziren bukaeran. Nola bizi izan zenuen tentsio hori?**

Larri, ikaratu ginen. Lau itzuli falta zitzaizkiela hartu genion tankera txapelari. 15 segundoan eman behar zuten itzuli bakoitza, eta hori egitea ez da posible. Are gutxiago fisikoki jota zaudenean eta herio batean zoazenean.

**Ondo ospatu al zenuen garaipena?**

Beno, denbora handirik ez. Astelehenean lanera joan behar zen. Oianumen mokadu bat jan genuen Julenekin eta lagunekin, eta gustura.

**Zer moduz Julenekin, elkarlanean? Atleta ikaragarria da, ezta?**

Julen da "la hostia". Oso diziplinatua, alaia, lagun ona, asko laguntzen duen horietakoa. Dena ematen du lan saio guztietan.

**Eman zenuen maila ona gogoan, banakako Pentatloi txapelketan lehiatzeko asmorik bai?**

Askok galdetu didate gauza bera. Ezezkoan nago. Banaka aizkora lan ona egiten duenak asko du irabazia. Iaioa izan behar da, mozketa erabakigarria baita. Astero bizpahiru entrenamendu egin beharko nituzke iraila bitarte, eta lan handiak dira horiek.

**"IRURETAGOENARI ETA OLAIZOLARI PRESIOA JARTZEKO ASMOA GENUEN, PROBA OSOAN"**



Jokin Lizeaga, Tolosa. AIURRI

## Lizeaga eta Gurrutxaga Tolosan, podiumean

Urnietarra T2Tn bigarren postuan helmugaratu zen, eta andoaindarra T3Tn hirugarrenean

**Erredakzioa** ANDOAIN

Jokin Lizeaga Tolosa inguruko lasterketetan maila ona eskaintzen ari da, azken aldi honetan. Maiatzean, Trikuharri lasterketan nabarmendu ostean, aurreko asteburuan T2T mendi lasterketan bigarren helmugaratu zen. Proba osoan aurrealdean ibili zen, lasterketa erregularra osatuz. Erregularitasun hori izatea gauza handia da Lizeagarentzat, etorkizuneko erronkei aurre egiteko garaian.

Tolosako mendi-lasterketa handian ez zen urnietar bakarra izan. Ainhoa Arruti bederatzigarren helmugaratu zen, T2T lasterketan.

Nesketan podiumera igo zena Maialen Gurrutxaga izan zen. Hirugarren sailkatu zen, T3T mendi maratoin.

**Andoaindarrak eta urnietarrak**

Andoaindarraren artean, Ivan Piñon, Jokin Uzkudun eta Igor Amantegi lehen 50 postuetan sailkatu ziren, T3Tn. Urnietarren artean Ander Zubizarreta eta Pablo Santos.

Asier Ceballos, Ander Setien, Julen Barandiaran, Xabier Alustiza, Iñigo Arruabarrena, Iker Ipintza eta Asier Gaztañaga andoaindarrek T2Ta amaitu zuten.



AIURRI

## Amaiera bikaina Iturzaeta txapelketa herrikoari

Iragan larunbatean eguraldi kaskarra iragarrita zegoen arren, eguzkiak bidea ireki zion Iturzaetako pala partidei. Sorabillako frontoia goraino bete zen lagunak, senitartekoak eta herrikideak ikusteko. Lehenik, emakumezkoen finala jokatu zen eta, lehen aldiz, Oihana Arrutik eta

Norak Mendizabalek irabazi zuten. Ondoren, afari apustua eta 3-4 postuak jokatu ziren. Azken norgehiagoka gizezkoen artekoa izan zen; aurreikuspen guztiak hautsita, Ponce-Alkorta bikoteak lortu zuen garaipena, Loidi anaiei irabazita. Partiden ostean, sari-banaketa egin zen.



AIURRI



Aranguren eta Etxarri. LOURDES ARANBURU

### Kadete neskek, bikain Euskadiko txapelketan

Bergaran Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak jokoan izan ziren, aurreko asteburuan. Ordulariaren aurkako proba zen, 7,2 kilometrokoa.

#### Euskadi mailakoa

Kadete mailako neskek erakustaldia eskaini zuten, hiru lasterkari lehen hamar postuetan sailkatu zirelako. Izaro Etxarri izan zen txapeladuna, Irati Aranguren txapeldun-ordea eta Itziar Alkain bederatzigarrena.

Kadete mailako lehen urtekoen artean Eneko Ugartemendia hamargarren sailkatu zen.

#### Gipuzkoakoa

Xabat Zuriarrain zortzigarren sailkatu zen, eta ez zen Andoaingo ordezkari bakarra izan. Markel Tamayo, Peru Sarasola eta Markel Marzol ere lehiatu ziren.

### Udako kirol eskaintza Urnietako Kiroldegian

12-16 urteko Urnietako gazteek hainbat kirol jarduera probatzeko aukera izango dute uztailearen 3, 4, 5 eta 6an. Jarduerak dohakoak izango dira eta parte hartu nahi dutenek ekainak 19a bitarte eman beharko dute izena. Informazioa Kiroldegiko harreraren topa dezakete.

#### Igeriketa

Uztailaren 3an hasita, bestalde, 3 urtetik gorako haurrentzat igeriketa ikastaroak eskainiko dira. Astebetekoak izango dira, hastapenekoak eta aurreratua. Ikastaroak goizez izango dira.



Eneko Beloki sakea egiteko mementoan. AIURRI

# Azpeitia nagusi joaneko partidari, Herriartekoan

Iragan ostiralean Herriarteko pilota-txapelketako finalerdia jokatu zen Arrate frontoian. Andoaindarrek lan handia egin zuten arren, ezin izan zioten Azpeitiari aurre egin eta hiru partidak galdu zituzten. Datorren asteburuan, itzulerako partida jokatuko dute

## Mikel Arberas ANDOAIN

Urte askoren ostean, andoaindarrek finalerdirako txartela eskuratu dute, urtez urte egindako emaitza gisa. Aurkari zaila egokitu zaien arren, gogo bizia erakutsi zuten iragan ostiraleko norgehiagoketan; andoaindarrek kasta erakutsita gogor saiatu ziren azpeitiarren aurka, baina ezin izan zuten garaipenik lortu (6-22, 2-22, 12-22).

Kadeteetan Mikel Gaztañaga eta Aimar Beroz kantxaratu ziren, eta emaitzak bestelakoa erakusten duen arren, andoaindarrek partida ona jokatu zuten (6-22). Berozek atzekaldean bikain jaso zituen pilotakadak, eta Gaztañagak ahal bezala lagundu zion bikoteari.

Jubenil mailako partidari, Julen Gaztañaga eta Joseba Beroz izan ziren Andoaingo ordezkariak. Partida hau, azkarra eta bizia izan zen (2-22); azpeitiarrak, une oro, gailendu ziren eta nagusitasun osoa era-

kutsi zuten. Atzelariak jasan zuten eraso handiena, eta ia denbora guztian bosgarren koadro atzean kokatuta egon zen, Gaztañaga aurrelaria jokoan sartzeko aukera askorik gabe utzita.

Azken partidari, Imanol Usandizaga eta Eneko Beloki atzelariak jokatu zuten (12-22). Usandizagak atzekaldea zaindu zuten eta Belokik aurreko koa-

droetan min egiten ahalegindu zen. Hasiera batean, norgehiagoka parekatuagoa zirudien, atzekaldean ondo jasotzen hasi zen goiburuarra eta, aurrean, Belokik neurria hartzeari ekin zion. Hala ere, partidari aurrera egin ahala, markagailuan alde ateratzen hasi ziren, eta tanto batzuk lortu zituzten arren, ezer gutxi egin ahal izan zuten andoaindarrek.



Aimar Beroz atzelari lanetan, Herriarteko Pilota Txapelketan. AIURRI



Txapeldun-ordeak eta irabazleak sari banaketa ekitaldian. ORIAMENDI

## Segurola eta Juanenea txapeldun handiak

Segurola eta Juanenea bilakatu dira Sagardoaren Txapelketako eta "Erremontari" saioko txapeldunak

### Mikel Arberas HERNANI

Finalak ikusmin handia sortu zuten, eta jende andana bildu zen Galarretako harmailetan. Segurola eta Juanenea irabazi zuten txapela preziatua, 1-2 gailenduta, 11-15, 15-10 eta 2-5eko partzialekin.

Lehen setean, gorriek aurre hartu zuten, Urrizaren joko era-

sokorrari etekina ateraz. Martirenak, artean, ondo babestu zuten atzekaldea.

Bigarren jokoan ondo bideratu zuten Urrizak eta Martirenak; gorri koloreko jokoan izan zen.

Finala hirugarren jokoan erabaki zen, 5 tantora. Azkenean 2 eta 5 nagusitu ziren Segurola eta Juanenea.



Saridunak, txapela lortu berritan. ORIAMENDI



Jendetza elkartu zen, Galarretan. ORIAMENDI

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 15

**ANDOAIN Argazki-erakusketa**  
Erakusketa kolektiboa.  
*Ekainean. Bastero.*

**ANDOAIN Erakusketa**  
Erakusketa kolektiboa.  
*Ekainean. Goiburu Golf Klub.*

**ANDOAIN Erosketa-bonuak**  
Salkinen bonuak agortu dira.  
*Ekimena: Ekaina.*

**URNIETA Antzerkia**  
Egapeko LH4koen emanaldia,  
Berasategiren zuzendaritzapean.  
*16:30, Sarobe.*

**URNIETA Omenaldi-ekitaldia**  
Lore eskaintza orain 35 urte  
espetxean hil zen Juankar  
Alberdiren omenez.  
*19:30, San Juan plaza.*

## OSTIRALA 16

**ANDOAIN Antzerkia**  
"Sexberdinak". Aktoreak: Telmo  
Irureta eta Aitziber Garmendia. Bi  
lagunen istorioa, umorez eta minez  
tindatuta.  
*20:00, Bastero.*

**ANDOAIN Axeri Dantza**  
San Juan jaiak gainean dira, eta  
Axeri-dantza ekitaldi seinalatua da  
herrikide askorentzat. Bertako  
tradizioa biziberrituz, egun pasa  
atsegin izaten da partaideentzat.  
*Ekainak 16, 19 eta 21.*  
*19:00, Ondarreta ikastetxea.*



**ANDOAIN Argazki-mostra kolektiboa**

Xabier Alkorta, Eduardo Arresegor, Bertol Arrieta, Haizea Brosa, Itziar Gutierrez, Xabier Huitzi, Jon Jauregi, Juanan Lazkano, Aitor Regillaga, Maddi Trutxuelo, Nerea Uralde eta Rosa Zozaya dira mostra kolektiboko partaideak.  
*Hilabete osoan zehar. Bastero Kulturguneko erakusketa gela.*

## LARUNBATA 17

**ANDOAIN Plenoa**  
Korporazio berria osatzeko ekitaldia.  
*10:00, Batzaraldi aretoa.*

**URNIETA Plenoa**  
Korporazio berria osatzeko ekitaldia.  
*12:30, Batzaraldi aretoa.*

## IGANDEA 18

**VILLABONA Bizipoza jaiak**  
Egun osoko ospakizuna.  
*Egun osoan zehar.*

## OSTIRALA 23

**URNIETA San Juan bezpera**  
San Juan sua pizteko ekitaldia.  
*22:00 Bilkura.*  
*22:15 Akelarrea.*  
*22:30 Sua piztea.*  
*Ondoren erromeria.*

**ANDOAIN San Juan bezpera**  
22:30 Suziri, txalaparta eta  
kanpai-errepikarekin San Juan sua.  
Partaideak: Alberto Agirre eta Udal  
Musika Eskolako abesbatzak,  
banda, Olagain txistulari banda eta  
Urki dantza taldea.

## ZINEMA



## Upon entry

**Zuzendaria:** Felix Van Groeningen. **Aktoreak:** Alberto Ammann, Bruna Cusi, Laura Gómez, Ben Temple, Gerard Oms, David Comrie.  
**Herrialdea:** Katalunia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania (Jatorrizko hizkuntza, katalana). **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 72 min.

## Denboraldiko azkena

Intrigaz eta misterioz beteriko filma da. Asteburuan izango da, gainera, estreinaldia, estatu mailako zinema aretoetan. Diego urbanista venezuelarra da, eta Elena Bartzelonako dantzaria. Estatu Batuetara joango dira, bisak onartuta, bizitza berri bati ekiteko. Bere asmoa aukeren lurraldean familia bat prestatzea da. Baina

New Yorkeko aireportuko immigrazio-gunean sartzean, bigarren mailako ikuskapen-gelara eramaten dituzte. Bertan, aduana-agenteeek ikuskapen-prozesu desatsegin bat eta psikologikoki nekagarria den galdeketa bat egiten diete, bikoteak ezkutatzeko zerbait izan dezakeen jakiteko asmoz.



**andoaINDARRA**  
euskaraz

**Urrats**  
inprimategia

**LEBITON KAMISETAK  
SALGAI, ENKARGUZ**

**12€**

• **TAILAK:** 1-2, 3-4, 5-6, 7-8.

• **KOLOREAK:** Beltza, gorria, urdin argia eta urdin iluna.

• **MUESTRAK:** Urratsen.

• **ESKAERAK:**

• [urrats@urratsinprimategia.com](mailto:urrats@urratsinprimategia.com)

• ☎ 688 61 85 48.

• Bertan (Zumea kalea, 19-Andoain)

09:00 - 15:00 (asteleheneretik ostiralera)

SANJUANETARAKO NAHI IZANEZ GERO EKAINAREN 15ERA ARTE.



JUDO KLUB TALDEA

## Gerriko beltza jantzita

Andoingo judoken aldetik, emaitza onak iritsi dira. Argazkian, hainbat judoka gerriko beltzarekin. Goian, ezkerretik eskuinera: Iñigo Garcia Baltasar, Alejandro Martin Perez, Iñaki San Martin Aguirresarobe irakaslea, Aroa Galindo Garcia, Haize

Alaminos Rodriguez eta Jon Zavala Bravo. Behean, ezkerretik eskuinera: Sergio Garayoa Portuburu (laugarren gerriko beltza lortu du), Nahikari Arrozpide Zabala eta Nahia Idigoras Eizaguirre.



AIURRI

## Kargu-hartze ekitaldia Urnietan

**EKAINAK 17, LARUNBATA. 12:30. UDALETXEKO PLENO ARETOA**  
Ziklo politiko berria abiatzear da. Argazkian, agintaldiaren erdialdera, Jorge Seguradok 2020ko udazkenean alkatetza eskuratu zueneko. 2023ko maiatzean hauteskundeak irabazi zituen eta, ezustekorik ezean, larunbat honetan aginte-makila eskuratuko du.



2019ko irudia. AIURRI

## Kargu-hartze ekitaldia Andoainen

**EKAINAK 17, LARUNBATA. 10:00. PLENO ARETOA**  
2023-2027 agintaldi berria abiatuko da, larunbatean. EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdiek lortu duten akordioaren arabera, Andoni Alvarez Lete izango da alkatea. Oharra argitarara eman dute, 5. orrialdean irakurgai. Bi alderdiek larunbateko ekitaldira joateko deia luzatu dute.

## ZORION-AGURRAK



ANDOAIN  
**Eli Gallo Aizpurua**  
Ekainaren 28an urteak beteko dituzu. Urte askotarako! Zorionak eta muxu handia. Etxekoak.



URNIETA  
**Axel Cuenca**  
Ekainaren 25ean 14 urte beteko dituzu. Zorionak Axel!!!!!! Ondo pasa zure egunean!!!

## TELEFONO ZENBAKIAK

### URNIETA

Bertan: 943 008 000.  
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.  
Osasun zentroa: 943 006 680.

### ANDOAIN


Ataria: 943 300 830.  
Udaltzaingoa: 943 300 819.  
Osasun zentroa: 943 006 670.

### Zorion agurrak Aiurri

- www.aiurri.eus.
- diseinua@aiurri.eus.
- 619 163 537 (whatsapp bidez).

## Zaborra, ur-parkean

Ur parkea zabalik da Andoingo Miranda pasealekuan, eremuaren itxitura egiteke dagoen arren. Aurreko asteko eguraldi beroarekin, dozenaka haur hurbildu zen aisialdi eremu berrira. Haurren eta familien jokabidea ez da zuzenena izan, zabor ugari pilatu baitzen lurlean. Inguruko bizilagunek zaborra jaso eta egoeraren berri eman zitoten Aiurri.



AIURRI

## Familia Laguna ekimeneko kideei eskertza-ekitaldia

Andoingo Gizarte Zerbitzueta-ko Sailaren "Ongietorri eskolara" ekimenak ikasturteko azken hitzordua egingo du, ostiral honetan. Etxeberrieta parkean egingo den ekitaldian, Aita Larramendi ikastolako, La Salle Berrozpe ikastetxe eta Onda-

rreta ikastetxeeko Familia Lagunak elkartuko dira. Aurten, programa amaitzen duten familiak omenduko dituzte, diploma bana emanez. Ikasturte honetan, Andoingo 38 familiek parte hartu dute. Familia Laguna programak migratutako familiak tokiko familiekin harremanetan jartzen ditu, nagusiki, eskolara egokitze prozesuan laguntza eskaintzeko.

## Indarkeria matxistari buruz hausnartu du Itaiak, Urnietan

Hainbat ekintza antolatuz zituen Urnietako Itaiak, ekainaren 11n, indarkeria matxistaren gainean hausnartzeko, herrian dauden beharrak identifikatzeko, bai eta elkarren artean ezagutzeko ere. Hala, ezagutza-jolasak eta asanbladaren aurkezpena egin ziren, San Juan plazan. Bestalde, mural-margoketa egin zuten: "Indarkeria matxistari orori, aurre egin!".





# Aiurri.eus gunea, egunero zabalik



Azken ordukoak



Zozketak



Agenda



Argazki-galeriak




Bideoak




Atal bereziak



Agenda



Zorion-agurrak



Eskelak